

EMAKUMEA EUSKARAREN TRANSMISIOAN

Maria Luisa Egia

Letra Goi-Ikasketetan diplomatu

Lantxo hau prestatu nuenean, nik ez nekien Van Lysebeth eta Starhawk nortzu ziren, ez Tantra zer zen ere, baina Mirande, Oteiza, Barandiaran, Ortiz Osés eta Sanchez Carrión bai ordea.

Nik jakin nahi nuena hauxe zen: Zergatik dirau Euskal Herriak euskaldun?

Nik neure bihozkadak banituen, baina soziolinguistikak eta hizkuntzaren irakaskuntzazko teoriak baino gehiago, neure barneko grinek eraman naute, gai honi bere alde psikiko eta mitologikotik heltzera.

Eta hona hemen, emakumea, hizkuntza eta sormenaren jatorria, historiko eta mitologikoki non zegoen eta non dagoen aztertzea. Capraren ustez, etorkizuna ekologia eta emetasunean bait dago.

Baina kontuz, arra baztertu gabe, balio emeak garatuz. Bizia bien artean eratzen bait da, txanpon beraren aurpegi biak, hizkuntza eta herria bezala.

Euskaldun Laminei

Aingeru harroak, heren-suge hotzak
Adonaien zeru agorretan zutik.
Hik giristinoa, gorets itzak...
Beude goian neure gatik,
Niketetz oi ¡ ahizpok, jainkosa pollitak!

Andere Lurraren lehen-jaiok haur,
Lilluraturikan zuen lurtar kantak
Zuetan dut ustea gaur.
Aintzina herri hau zuena izan da,
Jentil harrietan jarrita zegoen
Zuendago esne, gurin: oberenda
giza-bihotz ta gogoen.

Geroz zuen hatzak elas! dira galdu
ibia ta leizeetan, eta gure baitan;
Latinez otoituz zaitutzte ohildu
gizon beltzek elizetan.

Judaiar Baalen neu sinhestun ez naiz,
Jentilen odola niregan badabil
Asaben modura gur dagizuet: maiz,
Gauaz ager guri hurbil,
Aintzina bezala emeezue berriz
Zuen jakintzaren urrea jendeeri,
Alait' ezazue mosuz eta irriz
Zeru minez dena eri,
Morturik etorri sinesmen arrotza
Euskal Herritikan aizinezate ken

... Eragina baitu euskaldun bihotza
Lur Amaren gana zeken...

Jon Mirande 1.961, 3.3.
Ene Jaingo-Edoil Zaharra, Lur!.
Elkar 1984



Tantrak, lureko bizian, denak denengan eraginez, egunero jantzi eta elikatzen duen prozesua ikusten du. Eta lurra eta bere biosfera, organismo bizia eta bakarra, psikismo kolektibo autonomoaz jabetua, Kosmos osotik banaezina.

"Tantra le culte dela fémenité" André Van Lysebeth, Flamarion 1988

Emakumea, jainkosa guztien desagerpenarekin batera, erlijio erduetatik at gelditu da; Bere nahiak, beharrak eta esperientziak garatzeko sistema izpiritualik gabe, alegia. Horregatik Witch Craft edo Erlijio berria emakumeagan birsortzen da.

Maitasun eta pozezko ekintzak, erritualak dira, zeren sexualitatea, bizi indarraren agerkuntza zuzena izanik, sakratua bait da.

Starhawk, The Spiral Dance, New York 1979

Memoriaren izenburua

Emakumearen aldaketa psiko-sozialen eta euskararen galeraren arteko interferentziak.

Gaia: Herria eta hizkuntza, txanpon beraren aurpegi biak.

Helburua: Herri baten kultura ez dela hizkuntza soilik, teknikioki hartuta, frogatzea.

Hizkuntza ez bait da zeinu pilo baten bilketa; faktore soziologiko, psiko-logiko, historia, etnologia, eta abar luze batean oinarrituta dagoen zerbait baino.

Abiapuntua:

Gilermo Humboldt¹ linguistik emaniko definizioaz hasiko naiz:

Herri edo zibilizazio batentzat hizkuntza da munduari heltzeko euskarririk egokiena.

Testualki:

“Nire lanaren helburu garrantzitsuena, euskaldunei dagokienean bere ingurugunean bereziki aurkeztea da:

Ohitura eta bizitza erak: hizkuntza, izan, pentsa eta sentitzeko eraren adierazpen bizia bezala agertzen saiatuz.

Horregatik, beraien esaera, dantza, musika eta olerkiei, aparteko begirunea eman diet”.

Geroago, Ferdinand de Saussurek² egungo linguisten aintzindariak, hizkuntzaren bikoiztasuna azpi-

marratuko du unitate konplexu bezala: fisiologikoa eta mentala.

1. Silabak ditugu, inpresio akustiko bezala, baina ezinezkoak izango lirateke ahots-aparaturik gabe.
2. Hotsa adimenaren instrumentu baino ez da.
3. Hizkuntzak, adimen bezala, alde individuala eta soziala ditu.
4. Sistema, egina eta konbentzionala izan arren, eboluzioan dihardu egunero.

Gizakien ahalmen errezepzio-koordinazio funtzionamenduei esker, inprontak sortzen dira hitzunen, biziki berdintsuak izatera helduz guztiengan.

Nola adieraz daiteke emaitza sozial hau hizkuntza beste gauzetatik at ager dadin?

Gizaki guztiengan bilduta dauden hots-imaginak bateratu ahal bagenitu, hizkuntzak eratzen duen lokarri soziala eskura genezake, hizkuntza komunitate bereko partaide guztiek, eguneroko mintza-praktikari esker sortzen duten altxorren emaitza bait da.

Garun bakoitzean birtualki esistitzen den gramatika-sistema edo hobeki esanda, gizaki-talde baten burmuinetan, zeren, hizkuntza ez bait da garatzen inorengan multzoan baizik, (testuala).

Humboldt-ek intuizio handiz eginiko planteamenduei esker, gero teknikoki lan asko egin da. Bere jarraitzaileak, soziologo, psikologo,

etnologo, filosofo, eta batipat semantistak, hizkuntzaren esanahia aurkitzen saiatu dira.

Linguistika alorrean, azken urteok aberatsak izan dira:

Estrukturalisten lanen ondorioz, hizkuntza desberdinen familiak ezagutu genituen.

Transformatzailei esker, Gramatika Unibertsala. Hizkuntza guztiek berdintasun handiak dituztela adierazi dute.

Babelgo dorrea bota ote dute?
Hau egia al da?

Ba bai, alde batetik, janariak, algak Japoniatik, Tea Zeylandik, tejanoak Ameriketatik, eguneroko gauzek gero eta berdinagoak dirudite.

Agerian gustu berdinak ditugu: idolo berdinak: antzezle, abeslari. e.a.

Baina hizkuntzari dagokionean?

Nik “etxea” esaten dudanean, nire baserrian pentsa nezake, Euskal Herriko baserrian.

Baina hauek, desberdinak direla ohartzen gara, iparraldean ala hegoaldean kokatuta egon ala ez.

Eta nire konparaketa Groenlandiarekin bada, nire solaskideak automatikoki “iglo-az” pentsatuko du.

Orduan kontzeptualizazioa bakoitzarengan desberdina dela esan

genezake eta Humboldt-engana jotzen dugu berriro, zeren gure herriaren berezitasunak, inguruko etnienetatik, oso nabarmen bereizten bait dira.

70.eko hamarkadan, kulturalki Euskal Herriaren garairik aberatsena antzinatek, intelektual batzuek eragin handia izan zuten.

Jorge Oteizak³, adibidez, bere atzetik erabili zuen belaunaldi bateko kantari, poetagile, e.a. “euskal arima” bere eskulturetan bilatzen zuen bitartean.

Oteizak “euskal arimaz hitz egiten duenean bere *Quousque Tandemen*, ene ustez, arima hau ez da zer edo zer metafisikoa, munduari eta biziari heltzeko euskarria baizik, Von Humboldt-ek esaten zigen bezala.

Oteiza, euskal sinbologia artistikoen ikertzaile ezagunarentzat, “Hutsa” eta “konkabo emea” dira euskal artearen ezaugarriak.

Hobeto esanda Neolitikoko zero-cromlech-a izango litzateke euskal estetikaren errepresentazioa.

Historikoki, Oteizarentzat, gizakiak, hizkuntza artistiko osoaren prozesuaren amaieran, bakardadearen jabetza lortzen du “huts metafisikoan”.

Euskaldunen alor izpiritualari begiratuz, modelo “osoan” “esistentziala” dago bere borobildutako artearen ezaugarri; bere antzinako balentrien transzendentzien memoriak oraindik intrakontzientzia kolektiboan dihardu.

Gure tradizioan, *ezer eza* afirmazio erlijiozko eta naturala dela dio.

Euskaldunen erlijio-sentimenduei estetikoki begiratu, Oteizak hauxe azpimarratzen du:

Heroen santutasun tragikoa ez dela euskaldun eredu.

Gure erlijio-sentimentua prozesu estetikoan datza eta ez moralean.

Eta hemen bereizketa egiten digu:

1. Gaur egungo azaleko sentimendu etikoa, katolikotasunetik dator kiona da.
2. Eta beste bat askoz ere sakonagokoa, bere prozesu estetikitik datorkiona, hain zuzen ere moralarekin lotezina.

Honetarako, euskal santu bi kontrajartzen ditu, konparaketa egiteko:

Garikoitz, maitasunez jokaten duena, bizitza natural batean.

Loiolako Inazio, maitasunagatik jokaten duena, izuaren eta minaren teoria beldurgarria sortuz.

Euskaldunontzat, Jainkoaren lehen pribilejioa Justizia bait da eta ez Errukia.

Euskal Herrian mundu guztia, gure oinarriak gramatikan, literaturan edo kanpo-itxuran bilatzen ari den bitartean, euskara berreskuratze, Oteiza euskal arimaz mintzatzen zaigu.

Haren ikuspuntua harrigarria da. Haren eritziz, gure hizkuntza ingelesa bezain arrotza gerta dakiguke, nahiz eta jende gehiena mintzatu, hizkuntzaren alor teknikoaz besterik arduratzen ez bagara.

Euskara eskuratzea, euskal gizakiaren berreskurapen ondoren letorke. Horra hor kakoa!

Hitzez hitz:

Arazoa, ez legoke hizkuntza gizakiari berrematean, gizakia hizkuntzari ematean baizik. (Ez geratzen zaigun gizakia, gizaki osoa, guk antzina genuena hizkuntza barnean).

Gizaki itzultzea litzateke horrela lehen kuestioa hizkuntzaren berreskurapenean. Gizaki honen berreskurapena, bere kultur osotasunean, baina gure estilo kulturalari jarraituz.

Euskaldunok geure mundua ikusteko era, geure etika, estetika eta geure balore eskala bait daukagu.

Nola azaldu bestela gure inguruko arazoak?:

Gizon-emakumeen arteko harremanak, alkohol-zaletasuna, kontraesan politikoak, borroka armatua... Euskadin?

Andrés Ortiz Osés-ek⁴ analisi hermeneutikoa egiten du, Jung-en⁵ argudio arketipikoak erabiliz, gure inkontziente kolektiboa arakatuz.

Harentzat, eta ni ere iritzi horren aldekoa naiz, euskal kultura, aurreindoeuroparra da, matriarkala eta komunitarioa, inguruko kulturak patriarkal eta indibidualak izanik.

Euskal kultura, natura eta lurrari lotua, desagertzeko azkeneko unean aurkitzen da.

“Ezkerra” hitzak, “esquerre” eman du katalaneraz eta “izquierdo” gazteleraz. Eta mitoaren sinbologia-rekin ahaide dugu, Bachofenek ondo aztertu zuenez eta Tartukok Eskola Sobietarrak gero baieztatu duen bezala.

“Ezkerra” koordenada sinbolikoan analizatuz, sinu matriarkal naturalista bezala agertzen zaigu.

“Eskubia”, ostera, patriarkal indibidualista bezala.

Euskal mitologiak “ezkerra” aukeratzen du “Mari-ren ekintza eta erritualetan”.

Eta badago pila bat ekintza euskaldunak ezkerrekin egiten dituenak:

Txistua jo, idiak uztartu, txapela jarri, aterkia edo poltsa eramanez e.a.

O.Osés-ek Thomson-en zita dakarkigu:

Gizatasuna prozesu matriarkal bezala interpreta daiteke, amarekiko harreman luze eta iraunkorraren teoriari jarraituz; harreman honek kultura naturala, hizkuntzaren sorrera eta oinarritzko sozializazioa garatzen bait du.

Baina sar gaitezen Joxe Migel Barandiaran⁶, mundu guztian oso ezaguna den mitologo eta antropologoaren eskutik, euskal mitologian eta beraren alde matriarkalean:

Euskal “etxeak” erlijio-kutsua du.

Erljio honetako ministraria etxeoandrea da, kultur ekintzak berak egiten dituelarik: argi- eta janari-opariak etxeo hilei.

Etxekoandreak bedeinkatzen ditu etxeo guztiak urtean behin, senitarteko denei bakoitzaren zereginak irakatsiz, hots ahaide zaharrekiko komunioa, zaharreganako errespetua, komunitate eta auzoekiko betebeharrak. e.a.

Etxekoandreak ordezkatzeko du etxea, bere jarlekuan. Etxe bakoitzak bere jarlekua bait dauka elizan edo familiako hilobian.

Emakumeak zuzentzen ditu zeremonia edo ekintza sakratuak.

Etxekoandreak edo familiako beste emakumeren batek zeremonia hau ezin duenean zuzendu, andere-serorak ordezkatzeko du, hau abadesa delarik.

Heredentzia, gizonezko nahiz emakumezkoek har dezakete, eta ez gizonezkoen bidez bakarrik, Erromatar Zuzenbideari jarraituz.

Barandiaranentzat, etxeoandrea, lana, erlijioa eta etxeo ardatza da, baina ezer baino lehen, euskal psikismoaren ezaugarria da abesti,

leienda, mito, errito eta abar luzean. Ondo nabariak, Euskal Herriko sorginkeraren historian: Akelarrea, emankortasunen errito bezala, eta beste hildakoen zeremonietan.

Hizkuntza estrukturari dagokionean, azpimarragarriak dira honako hauek:

Artikuluak: neutroa.

Aditz-estruturak: Arkaikoa, iragan-orainaldian ardaztua batipat eta ez geroan.

Hau Mayr eta Bornemanek matriarkal-naturalistatzat analizatzen dute.

Aditz-estruturak: Gavel-ek analizatu zuen eta objektu-errealitatean gorpuzten da eta ez subjektuan, indoeuropar hizkuntzetan bezala.

Euskal totemismoa eta bere estetika⁷

Euskal mitologiaren esentzia indar-adur (indarra eta potentzia)k emergentzia edo agerkuntza oparotasun, arrakasta, mogimendu metamorfikoan datza; hitz batez: errealizazioan.

Euskal errealitateak urrea, altxor preziatuak, esne eta eztizko errekak ezkututzen ditu, bere barnean.

Berarentzat, estrato mitologiko honek lagunduko digu euskal imajineria ulertzen: Oteizagandik, Txillida eta Basterretxea, Zubiaurre, Arrue eta Artetaganaino.

Estetika: Estatika-Estatikoa da, immobilismo "numens-is" (latinez) batera garamatzala panteistikoki, naturaltasunez trabesatuz.

Batez ere Oteizaren teorian ikus liteke hori (Hutsa, zirkulua, Cromlech edo harrespilak), arraultza, zero edo japoniar lorategiak, interpretazio matriarkal-naturalista eta komunitarioaren ikuspegi bezala.

Erreferentzia matriarkal-patriarkalak

Patriarkaltasuna, arraren ikuspegian finkatzen da: Aita Jainkoa eredutzat duela.

Indoeuropar mitologia guztien heroea.

Mitologia matriarkala: munduaren ikuspegi emean datza: Ama Jainkosa handian finkatuz.

Kosmo-ikuspegi matriarkala, munduaren kontzeptzio erlijioso-birlotzailerantz -"religari" (birlotu)-do. Ia atzerakoia eta erdi-panteistikoa.

Erraaltatearen kontzeptzio patriarkala berriz, razional, kritikoa eta heroiko-aurrerakoira doa, liberal-illustratu zeinukoa eta erlijioz-sekularra.

Bachofen-en erromantizismoa eta Ilustrazioaren kritizismoaren arteko gerra da hau.

II. Karlistadak, 1.936.ekoak eta ETA-renak, zentzu bera dute:

Administrazio-askapena, independentzia kultural eta linguistikoa lortzeko.

Linguistikaren ikuspegitik begiratzuz, Soziolinguistikak frogatua du, ingurugune diglosikoetan, hizkuntza minorizatuak hobeto gordetzen direla herri txikietan eta baserri giroan, hiri handietan baino.

Euskal Herriak azkeneko 150 urteotan, zirrara asko sofritu ditu: gerrak galtzea (ikuspuntu politikotik) eta industrializazio basatia, inmigrazio ikaragarria erakarritz hegoaldean, iparraldean emigrazio sistematikoa ematen den bitartean.

Hau paradoxa!

Ondorioak ondo ezagunak dira, baina ez ondo analizatuak ene ustez.

Karlistadak galtzearen ondorioz, Euskal Herriaren subordinazioa datorkigu.

Foruen deuseztapen ondoren, Hego Euskal Herriko 4 herrialdeek, bere historia guztiko humilaziorik handiena sofritzen hasiko dira, independenteak bait ziren 1.839. arte

Herrialdeetako Asanblada Orokorretako diputatuen disposizioak subiranoak ziren. Erregeari parte ematen zitzaion, eta zin eragin, lekuko bezala.

1.876.ean II. Karlistada galdu ondoren, Bilboko portuko aduanak Burgosera pasatu ziren.

Ekonomiari dagokionean, Euskal Herria, garai horretararte Europa guztiarekin merkatal harremanak izatetik, Espaniarekiko menpekotasunera makurtuko da.

Politikoki, Europako legeria zaharren eta demokratikoenaren deuseztapena suposatuko du.

Diputatuen Asanblada, ez da gehiagotan herriak demokratikoki aukeratua izango, eta Euskal Herria menperatu eta humilatua izango da harrez gero.

II. Errepublika sentibera azalduko da, eta autonomia emanez amaituko, baina honez gero 1.936 arteko tarte aldaketa handikoa izango da Espainiako arlo politikoa.

Euskal Herrian, burges txikiak Foruetatik at zeuden politikoki, legislazio hau herribaserri girokoa zelako batez ere.

Burges txiki hauek, heroe bihurtuko dira egoera politiko berrian Erregimen honek hiri-bizitza goratzen bait zuen. Talde honek eta karlisten jauntxoek bat egingo dute politika arloko diferentziak ahaztuz eta klase sozial berezia sortuz.

Liluratuta geldituko dira balio berrien modernitateaz, eta gaztelaniaren indarraz, unibertsaldia eta oldartua Amerikaren kolonizazio ondoren.

Inperioaren hondamendia, garaiko euskal idazle gehienek aipatuko dute: Barojak, Maeztuk, Unamunok...

Euskara indarra galduz doan balioa da, eta berarekin beste balio batzu: komunitatea, leialtasuna, anaitasuna, demokrazia zuzena e.a.

Alderdien garaipenak, honek dakarren herriaren ordezkatzearekin, aurrerakada handia suposatu zuen Europa feudalean, baina galera ikargarria berriz herri txiki honetan.

1.900.etik aurrera, burgesia honen parte bat, bere kultura eta hizkuntzaz ohartuko da. Alderdi nazionalisten berpizketaz, euskal kultura eta balioak landuko dira, eta hizkuntzak, eboluzionatuz, hirirantza egingo du.

Baina 1936.eko berriro itxaropen guztiak zapuztuko ditu Hegoaldean.

Iraultza frantsesak Lapurdi eta Zuberoako Foruak deuseztuko ditu 1789.ean (Abuztuaren 4eko gauean). Euskal herriko departamentua sortu beharrean Pirineo Behereetako departamentua sortu zen Biarno barne. (Gaur Pirineo Atlantiarrek).

Napoleonon garaia, aurrekoa baino zentralistagoa izango da.

1848.tik aurrera, Frantziako Erresuma deituko zaio, nahiz eta horixe bera bakarrik izan, 1620.ean Enrike IV.ak Frantziako eta Nafarroako Erresumak bat egin zituenetik.

Eta Euskal Herri kontinentala harrez gero krisi politiko eta ekonomiko izugarriak jasaten hasiko da, herritarrak atzerriratzen behartuz etengabe, gaur egun arte.

Arazoa historikoki ondo mugatu ondoren, gerrak eta foruak galtzea medio, azter dezagun orain, egungo euskal hizkuntzaren egoera sozio-linguistikoa:

Josua Fishman-en⁸ lanek, lagun-duko digute euskal hiztunen jarrera aztertzen. Autore honentzat, egoera diglosikoaren barruan, hiru izango lirakeke jarrera posibleak hizkuntza minorizatuen aldetik, nagusiarekiko:

1. Jarrera

A taldea (gutxiengoa) B taldera pasatzen da, (nagusira) eta asimilatu egiten da.

Hemen hizkuntz ordezkatzeara automatikoki ematen da.

Euskaldun talde minorizatuak bere hizkuntza arrunt sentitzen du, harekiko harremana eta baita bere kultura propioarekikoa ere gorrotoz eta mesprezuz biziz.

Egunero frustazioan ezin bizirik, eta situazioa hau berrorekatzeko hizkuntza nagusira joko du. (frantsesa edo gaztelania).

Hizkuntz asimilazioa laister emango da eta urte gutxi barru, asimilazio kulturala osoa izango da.

2. Jarrera

Talde minorizatuak (euskalduna) bere hizkuntzaren desagertzea susmatzen du, eta erreboltan sartzen

da, hizkuntza nagusiaren kontra (frantsesa edo gaztelania).

Normalizazioa ez da posible, hizkuntz minorizatu honen hiztun anitzi esker baino. Hiztun hauek maila sozial guztietan egoera behar dute, beren hizkuntza eta kultura masa sozial bera eta balio-eredu bezala ulertuz eta biziz.

3. Jarrera

Talde minorizatua apatikoa da, honen esanahia hizkuntzaren erabilpen familiarrean, baina ez sozialean datzalarik.

Elebitasun ordezkakorra deritzo honi eta hizkuntza nagusia laister izango da bakarra.

Tesia

Gizakiak eta hizkuntzak patu berdina dutela dirudi.

Herri batek bi izen ditu:

1. Berak bere buruari ematen diona.
2. Besteek ematen diotena.

Herria, etnia, taldea, nazionalitatea, hizkuntzari esker bereizten da atzerritarrengandik.

Hizkuntza, komunitate bateko barne-harremanak lotzen dituen instrumentua bait da.

Eta are gehiago, komunitate honen osagaiek bere hizkuntza bereziak dituzte, hots argotak (profesionalak) maila sozial desberdinen hizkerak, e.a.

Hizkuntza berez, errealizazioa da, eta aldi berean kultur faktorea.

Azter dezagun euskaldun hitzaren etimologia:

E U S K A R A D U N

EUSKARA - DU - (E)- N

“DU”: Ukan laguntzailea 3. pertsona, orain erreal.

“(E)”: Lokarria.

“N”: Erlatibozko atzizkia.

Ikus dezakegunez, euskaldunak, bere buruari ematen dion izena, euskara duena da.

Soziolinguistikaren ikuspegitik, Euskal Herriaren mugak, euskaraz mintzatzen den tokietara mugatuko lirake. Euskara hiltzen bada, Euskal Herririk ez da izango.

Baina hemen garrantzitsuena ez litzateke izango hizkuntza bera soilik eskuratzea. Hizkuntza bere inguruan birkokatu behar da, bere rol sozialekin batera.

Sanchez Carrión-ek⁹, euskararen momentuko analisi soziolinguistiko ugariaren egileak, hauxe galdetzen dio bere buruari:

Zein izango litzateke herririk sendoena: kolonizatua ala kolonizatzailea?

Kolonizatzen duenak, gehienetan, bere izua proiektatu baino ez du egiten.

Eta zer eskuratzen du?

Boterea. Menperatu duen herrian, burokrazia ez zen existitzen, eta boterea denen artean banatzen zen, oligarkia edo talde txikien garapenik gabe.

Eta botereak hitzaren beharra du.

Euskal Herrian, boterea urrun egonik, administrazio eta herriaren artean muga zegoen.

Gero, demokraziaren izenean, euskaldunek, Europako beste herri txikiek bezala, euren hizkuntza galdu dute.

Euskal Herriko herrialde batzuk elebidun tradizioa dute. Hara Nafarroa, elebiduna X. mendean geroztik.

Gortean, latina, okzitaniera eta euskara mintzatzen ziren.

Geroago, euskarak latina erosi-natzearen ondorioz Nafarroako erromantzea sortu zen.

Okzitaniera eta Nafarroako erromantzea batera mintzatuko dira Nafarroako gortean, Nafarroa eta Okzitaniako errege-erreginen arteko ezkontzari esker.

Baina Nafarroako erromantze eta euskarari dagokienez, biak batera aurkitzen ditugu San Millan de la Cogolla-n (Errioxa).

Fernando Katolikoak boterea eskuratu ondoren, Nafarroako erromantzea zena gaztelania deituko da¹⁰.

Hemen dugu jadanik, lehen txoke kulturala: latina/ euskara, Nafarroako erromantzea/ okzitaniera/ euskara, balore-eskalari jarraituz.

Baloreen eskalak, edo “filtro psikikoek” anglosaxoien esanetan, erresuma handien eboluzio historikoen arabera eboluzionatu erazten ditu hizkuntzak.

Eta honela Erdi Aroko hizkuntza sendoak desagertuak dira beren inperioarekin.

Latin kultoa, bera ere, nahiz eta eliza eta elite kulturalen babesa izan, hila da.

Hizkuntza baten balioa ez dago bere literaturari edo berari buruz egindako ikerketa zientifikoei lotua, euskaldunoi sinesterazi diguten bezala.

Guretzat, hizkuntza idatziaren gabezia, hau benetan tragikoa bait da, gure literatura idatzi guztia sermoi eta katezismoetara mugatzen delarik.

Gorago esan dudana bezala, hizkuntzei balioa, bere indar sozialetik datorkie.

Hala eta guztiz frantsesa eta gaztelania, nagusi euskararekin parekatuz, minoritarioak dira eta identitate-problemekin dihardute Quebec, Louisiana, Puerto Rico edo Turkian.

Orokorki hizkuntza konkretuari, prestigioa, bere jatorrizko herriaren boteretik datorkio. Beste

komunitateekiko aurrez-aurreko konfrontazioan irabazitako boteretik.

Baina gure herria eta inguruko herrien historiari gainbegirada eman ondoren ondoko hau, aurreratu genezake:

Berezko hizkuntzaren balioa: giza komunikazioa sortzean batak bestea ulertzeko kodeak eta sinbologia finkatzean datza, maila teorikoan.

Unibertsoaren barne-interpretazioa, talde guztian bat izanik, Hizkuntza, interpretazio honen materializazioa bait da.

Unibertsoaren ezagutza zabalduz joan ahala, hizkuntza, norbanako eta taldearen arteko interekintzazko eboluzioan garatzen da.

Hizkuntzaren oinarrizko balore hau trukatu egin da, erlijio eta beste kulturaren eliteen baloreen poderioz.

Unibertsoaren interpretazio batzu ontzat hartuz eta besteak baztertuz.

Eliza, bere botere politiko eta espiritualari esker, mundu guztian interpretazio bakarra ezartzen saiatu da.

Latina, erromatarren inperioaren ezaugarria, zientzia eta balore espiritualaren altxorra ere izan da.

Honen ondorioz, gaur egun badirudi, hizkuntzari balorea bere balentria militarretatik edo bere indar ekonomikoetik datorkiola.

Teoria hau hain zabal dabil, ezen euskaldunoi bihotzeraino sartu bait zaigu. Orokorrean, honela izan dela ezin uka daiteke, baina salbuespenak ere, hor daude, euskararena azalezina bait da adituentzat.

Argi dago, teoria honek gure hizkuntzaren eboluzioa ulertzeko ez digula balio, bestela erromatarren garaian desagertuko ginatkeen.

Ikus dezagun mendebaldeko hizkuntza garaileek nola ordezkatu duten latina.

Erromatarrek bere hizkuntza ezarri arren, herriak bere erara moldatu zuen latina, hau da, gaurko erromantzeak sortuz.

Elizak, boterean jarraitzeko, erromantzeak derrigorrez onartu zituen. Honela arabeen jakinduria gaztelaniara itzulia izango da eta germaniarrena frantsesera. Italiarrek, latinaren oinordeko zuzena izanik, inperiorik sortu ez zuenez, Vatikanoko elitea latinez mintzatuko da. Gaur egun ingelesa nabaritzen da besteen gaintik mundu guztia, baina ez Ingalaterrari esker, Estatu Batuei baizik.

Hizkuntza anglogermaniarrek XX. menderarte arrunt sentitu dira goi-mailako kulturaren.

Egun ingelesak indarra hartu badu, Estatu Batuei eskerrak eman beharko dizkiete ingelesek.

Gure hizkuntza menperatuaren duintasuna eskuratzeko, bere humila-

ziozko egoera sozialetik atera beharko dugu aurretik. Eta hau oso gogorra da gaur egungo estatu zentralista batek irensteko.

Baina jo dezagun Fishman-engana. Beraren analisiaren 3. puntuetatik, 2 asimilaziorantz doaz eta bat oster normalizaziorantz.

Baina zer esan nahi du asimilazioak?

Desagertu?

Hil?

Berezitasun etniko guztiak ezabatzea?

1789eko iraultza frantsesaren ondoren, berba asko egin da berdintasunaz. Kultura minorizatuak, oso ondo ezagutzen dute berdintasun hau:

Gora demokrazia! eta botoa emateko eskubidea! baina Nafarroan eta Iparraldean hizkuntza arrotz batean.

Eta inork nahi ez duenez hizkuntza minorizatuak ematen duen marginazioan bizi, ez bait dauka etorkizunik, zer egin?

Hizkuntza nagusia onartzea baino beste irtenbiderik ez da gelditzen, nahiz eta prezioa asimilazioa, kulturaren jatorrasuna galtzea izan.

Frantzia eta Espainiako estatuak bikain jokatu dute eta lortu ere egin dute, beren nahia arlo honetan.

Espainiako estatuak autonomi estatutu faltsu batez, botere eraginkor erreal gabea emanez, erresistentziako izango bait indarrak banatuz.

Frantziako estatuak politika departamentalei jarraituz, eta anitz kultura elkartuz departamentu bakoitzean. Zeren erresistentzia izango bait litzateke asimilatua ez izateko medio bakarra.

Are gehiago, gure egungo gizarte-arazoak, biolentzia fisikoa edo politikoa, droga, e.a. kontzientzia kolektibo eta erreferentzia kulturalarik ezaren emaitzak dira.

Telebistako idoloak faltsuak dira eta urrun daude.

Hizkuntzaren berreskurapenean gure hizkuntzaren eta gure kulturaren duintasuna eskuratzerakoan, gure baloreen errealtasuna eta geure buruaz dugun eritzia azpimarratu beharko ditugu.

Hego Euskal Herrian diglosiari dagokionean, 2 jarrera linguistiko aurkitzen ditugu:

Nafarroan eta Araban, jarrera zeharo asimilakorra.

Bizkaian eta Gipuzkoan, erresistentzia.

Nafarroako erresumak estruktura politiko arrotzak ezarri zituen, eta euskarak atzerakada ederra egin zuen, mendietan salbu, non Lakarraren ¹¹ ustez txiroen berdintasuna garatu bait zen.

Pobreziaren kontra-balioa, gizarte kontsumitzaileak ordezkatzeko du, eta hona jotzen dute egungo baserritar eta arrantzale euskaldunek.

Euskara berreskuratzea, egungo mendebaldeko mundu alienatuaren itzulpena egitea izango litzateke?

Inola ere ez! Gure hizkuntzaren salbazioa, gure balioen berrinterpretazio eta gure kultura propioaren garapenetik dator.

Guk ez dugu historia idatzirik!, guk ez dugu literaturarik!

Guk ez dugu hitza inmobilizatu!, Eta ostera ez gara aurkitzen historia aurrean ere!

Euskal historia eta kultura, milaka bertsolari eta emakume ipuin-kontalarik osatzen dute, inprobisatzaile eta fabulari oparoak, egunero, ahoz aho, gure historia birsortzen dutelarik, hizkuntza kontserbatuz. Ez ditzala inork ixildu!

Zeren, idatziak isiltasuna bait darama, berbak ostera askatasuna!

Askatasunean bizi den herria, herri sortzailea da, baina anonimoa da eta gure zibilizazioak oso txarto onartzen, asimilatzen du anonimotasuna.

Askatasun honek mantendu gaitu gaurdaino, euskaldunok.

Gure herrian, literatura, hizkuntzaren apologia egiteko erabilia izan da.

D'Etxepareko Mosen Beñatentzat¹², euskara hizkuntza literario zitekeen.

Nabardura hau, Sarako Etxeberri¹³ osatuko du geroago Frantzia aldean eta Aita Larramendik¹⁴, Espainia aldean.

Juan antonio Mogel-ek¹⁵ bere "PERU ABARKA"-n (Humboldt-en kolaboratzaile izan zen), XVIII. mendeko herri-psikologia itzultzen digu, baserritar ilustratua eredutzat hartuz. Hau benetako literatura izango da, baina hala eta guztiz ere, Mogelen lanak 80 urte itxaron beharko ditu argitaratua izateko. Estatu espainolak debekatua bait zuen gaztelaniatik aparteko beste hizkuntzarik.

Ekonomiari dagokionean, Euskal Herria, denbora oso laburrean, estruktura komunaletik kapitalismo basatira pasatu da, bere identitate eta ohiturak galduz.

Lehen, hitza nahikoa zen tokian, gaur ez da errespetatzen idatzia bera ere. Bailarako estruktura historikotik, egungo demokraziara pasatu gara, hau da, botere-kontzentrazioa.

Zaharrek esaten duten bezala: Guk ez dugu alderdirik behar. Alderdiek bere buruaz bakarrik arduratzen dira eta ez herritarrez. Guk gizon bat behar dugu, Alkatea!, denon ezaguna, eta denon artean aukeratua.

Honek argi agertzen digu, euskaldunok bizi izan dugun demokrazia zuzenak bizirik dirauela

inkontzienteki gure herriko historia eta abestietan, eta orain arteko amamen sutondoko ipuinetan: Gure historian kristautasuna sartu zenean, inkisizioak bortxakeriaren bidez, bere balore jerarkikoak ezarri zituen, gure sinismen eta askatasunaren truke.

Zeren, ezin dugu inoiz ahaztu, lehen euskal literatura prosaz, Leizarragak¹⁶, protestanteen fedearen apologia egiteko izan bait zen, Albreteko Joanaren aginduz.

Argi dago, Frantziako Iraultza, gero Iraultza Burgesa, nahikoa penagarria izan zela Galiako herri txikientzat, frantsesa inposatu eta beste hizkuntzak baztertu egin bait zituen, eta honetan beste gauza askotan bezala fidelki jarraitu zion estatu espainolak.

Hegoaldean, Karlistadak, askatasun-borrokak izan ziren Euskal Herriarentzat.

Gerra galtzearen ondorioz, botere-trukaketa ematen da. Eliza katolikoak, Espainian, bere botere erreala galtzen duenean, gogor eutsiko dio Euskal Herrian.

Euskaldunen huts egite eta inpotentzi sentimenduak bideratuz.

Hortik aurrera, Elizak estatua ordezkatzan du: Hezkuntza eta Ordena Publikoa zuzenduz, bere balore filosofiko eta moralak ezarritik.

Emakumeak, ordurarte rol garrantzitsua jokatzetik, etxeko gobernari gisa, etxea bait zen ardatz ekonomiko

eta soziala, sukaldera txokoratua izango da.

AMA EDO BIRJINA, hauek bait dira, emakumeentzat erlijio honek onartzen dituen status bakarrak.

Eta momentu honetan hauxe aurreratu genezake:

Ez da izan isolamendu fisikoa, euskaldunoi lagundu diguna gure hizkuntza eta kultura gordetzen, isolamendu mentala baizik.

Gure hizkuntza eta kultura isolamendu fisikoari esker gorde direlako hipotesiari onartezina deritzot.

Inbasioak asko izan dira Euskal Herrian, ipar, nahiz hegoaldean, eta euskaldunok ez dugu galdu geure kultura, ezta gure hizkuntza ere.

Hau horrela izan da, guretzat, bai kultura eta bai gure hizkuntza benetako balioak izan direlako.

Kontzienteki ala ez?

Nik, kontzientea izan dela, esango nuke, gogor euste hau.

Euskaldunek, beste herriekiko harremanetan, hauengan ona edo erabilgarria zena hartzen zuten, asimilatuz, eta beren jatorrizko ohiturak aldaeraziz. Baina inoiz bere ikuspuntu eta bizikera aldatu gabe.

Guzti hau frogatzeko ez dugu dantzen, tresnen, eta hizkuntzaren beraren eboluzioa aztertzea baino.

BAINA NOLA IRAUN DUGU EUSKALDUN?

Isolamendu mentala

Nire eritziz, emakumearen rola esentziala da, bai lehengo eboluzioa, bai oraingo asimilazioa ulertzeko.

Jo dezagun emakumearen rolera, euskal ekonomiaren ardatza orain gutxi arte.

Baita rol soziala ere, jolas eta jaietan, antzinako akelarre eta bere ordezkioetan, oraintsuago.

Kazikeak eta Eliza lur komunalen jabe egin dira. Emakume ezkongabeak hirietara joaten behartuak izan dira, eta han neskame, moja edo puta bihurtu.

Emakume hauek moral burgesa onartu behar zuten, oso desberdina baserri edo mendietako askatasun ekonomiko eta sexualaren aldean.

POLITA, ZINTZOA, BIRJINA EDO AMA, apala gizon eta moralaren aurrean.

Oso denbora gutxian, Elizak, emakumea bere espazio sozialetik kanporatu du.

Honen ondorioa: Emakumearen alienazioa, eta euskal etniarentzat: ISOLAMENDU MENTALAREN HERIOTZA:

Industrializazioak eta baserri inguruaren txokoratzeak, emakumearen ihesa bultzatu du, herri txikietatik hiriburu handietara. Hemen filme estatubatuarren heroinek ez zuten zer ikusirik gure neska baserritar traketsekin.

Burgesaren planta egiteko, eta erridikuluaren beldur, euskal emakumeek euren hizkuntza eta kultura ezkutatu zuten. Eta bai beren sentimentu eta naturazko bulkadak disimulatu ere, Señorita antza izateko.

Prozesu hau aurrera doa orain ere.

Begira nola galdu den euskararen erabilera emakumearentzat, lehenik esparru publiko eta soziala, eta gero baita etxeko espazioan ere.

Gizonei dagokienean, gehiengoak, orain arte, elebakar edo elebidun, euskara gorde dute, bere espazio sozialean.

Emakume batzuk, transmititu egin diete hizkuntza beren umeei. Gehienek osteria ez. Telebista eta bihotzeko prentsa frantsesa edo espainola eredu dutelarik, euskarari atzerakada ederra eman diote.

Eta hau ez bakarrik espazio sozialean, baita espazio afektiboan ere, erresistentziarako azken bastioia izanik.

Euskal Herria bezalako gizarte tradizionaletan, hizkuntzak ahozko transmisioa bide bakartzat duelarik, emakumearen rola oso garrantzitsua da.

Aurrez aztertutako sinbolizazioa duen kulturetan batez ere.

Badago hor nonbait halako teoria, nahiko zabaldua, historiarik gabeko herriez.

Herri isolatua, herri hila, euskaldunoi bere kolonizatzaileak bereziki dedikatua.

Ene ustez, oker dabilta, zeren Euskal Herria, ez bait da egon inoiz isolatuta.

Euskal Herriari dagokionean, kritika hau nahikoa berria da, justu bere subiranotasun politikoa galdu eta industria eta inmigrazioaren eklosioaren ondorengoa.

Nire teoria zeharo desberdina da ostera:

Sinbolizazio propiorik gabeko herria, bere bizi eta sentierazteko era kentzen zaion herria da, desagertzeko arriskuan dagoena.

Zeren, hizkuntza guztien atzean, sinbolizazio espezifikoa bait dago, komunitate bereko indibiduo guztiek lotuta mantentzen dituen.

Hizkuntza eta bere kontzeptualizazio-ekintza, korapilatsuak dira, gurasoen konplizitatea derrigorrezkoa izanez indibiduo kolektibitatearen partaide egiteko.

Eta horra hor, non aurkitzen dugun berriro ere sinbolizazioa. Zeren

sinboloaz ari gara, non aurkitzen da gizasinboloen jatorria?

Nor da Jung-ek errebindikatu duen inkontziente kolektiboaren transmisioa egiten duena?

Herri baten kontzientzia ez dator filosofi tratatuetatik, ezta bere irabazte militarretatik ere, amaren bularretik baino.

Injinerutza genetikoaren aurrera-kadaren garai honetan, ahaztezinak ditugu: haurra eta beronen ama.

Ondo ezaguna da, psikologiari esker, inguruak zer garrantzia duen umearen garapen psiko-afektiboan.

Hizkuntzaren ikasketak bi oinarri ditu:

Mintzamena alde batetik eta komunikazio ez-mintzatua bestetik. Nola heltzen da umea hizkuntza eskuratzerara?

Mundu guztian metodologia bera erabiltzen da, herriak garatuak izan edo ez. Haurdun dagoenetik, amak bere umearekin berba egiten du (honek, zoroen kontua dirudi, baina hala da). Eta hau izango litzateke lehen kontaktu enpirikoa, hizkuntza espezifikoa eta umearen artean.

Hau falta bada, ez dago komunikazio-possibilitaterik.

Horregatik dauzkagu gero eta indibiduo psikotiko gehiago.

Sei hilabete ondoren, haurrak hitzegiteko kompetentzia dauka, ulertzeko fakultatea daukanez geroztik. Baina horra heltzeko fonemak ordenatu eta ideiak estrukturatzeko beharrezko garapen fisikoa falta du.

Chomsky-rentzat, kompetentzia linguistikoa, giza genetikaren baliagarria bait da.

Orduan, esan genezake, giza-kiak genetikoki daukala gramatika unibertsala.

Nire galdera hemen: Ba al dago egokitasun berezi bat gramatika bakoitzari?

Badirudi gizakiak potentzian dituen ahalmenetatik, inguru konkretukoak hartzen dituela, diskriminazio bidez.

Eta inguru konkretua lotzeko, haurrak erabiltzen duen tresna hizkuntzaren funtzio faktikoa dela.

Roman Jakobson-ek emandako funtzioetako bat:

- 1- Funtzio mukizailea: hizlariagan kokatua
- 2- Funtzio konatiboa: entzuleagan kokatua.
- 3- Funtzioa faktikoa: hizlari eta entzulearen arteko lokarria.
- 4- Funtzio metalinguistikoa: kodean kokatzen dena.
- 5- Poetikoa: hizkuntzaren estrukturaturan kokatzen da.
- 6- Erreferentziala: esanahiaren analisisan burutzen den funtzioa.

Psiko-semiotikako teoriari jarraituz, badirudi, funtzio faktikoa dela komunikazio-alorrean lehen elikagaia.

Ama eta umearen arteko jolas irrazionalaz ari gara, umeen mundu-sinbologia estrukturatuz gain, biharko irudimen eta sormen-bagajea prestazen duena, era berean.

Hizkuntzaren funtzio faktikoan, bi ekintza azpimarratzen ditugu beharrezkotzat:

1. Begirada.
2. Distantzia.

Nagusiarekiko harreman desberdinetan, begirada eta distantzia gartzetan, zeina ume txikia "bebé" erderaz soinuekin jolasten hasten bait da, berezi eta ezagutzeko ahalmena duenetik.

Momento horretatik, hori soinuak identifikatu eta sailkatzen hasten delarik.

Guzti hau amarekiko jolas inkontziente eta irrazionala da.

Lengoiaren garapena negarrarekin hasten dela esan genezake, komunikazio-ekintza, eta amaren ahotsa entzun ondoren edo laztanak hartuz, ixildu egingo da.

Umearekin harremanak lortzeko, bere begirada "harrapatzen" saiatu behar dugula esango genuke.

Amak, bere begirada, irribarre, hitz leun, ikutu laztan, e.a.ez umearen espresioa eta arlo sozialak moldatzen ditu.

Umeak ez du ama imitatzen, alderantziz baizik, Amak umea imitatzen du, honen mimikaz baliatuz eta umeak esan nahi duena interpretatuz eta ahoskatuz.

Honela umeak bere adierazpen bidearen kanpoko errepresentazioa barneratzen duela esan genezake.

Amaren mugimendu-erritmoa umeari egokituko zaio. Amarekiko harreman honetan, komunikazio-esperientzia sortu eta garatuko bait zaio.

Atsegin zaion esperientzia honi esker, haurra inguruarekiko harremanak progresioan zabalduz joango da.

Berehala sortuko du komunikazio-sistema bat, hitzik ezin egin arren, bere inpresioak adierazteko gaitasuna erakutsiz. Hizkuntza elkar-emate honen luzamena bait da.

Amak, umea ulertzeko jarreraz, eta umearekiko elkarrizketaz, honen hezkuntza sozialean ezinbesteko papera betetzen du.

Indibiduoaren eta bere ingurugune hurbilaren apurketa diferentei esker, emakumea, berak ikasitako balio guztien kontra jarri dute, hizkuntza barne delarik.

Amaren rola, gaur egun, eskolak eta telebistak betetzen dute.

Hurtzaindegiko haurrek ez dute bakoitzarentzako bere amaren ordezkoa. Eta nahiz eta pertsona bat

izan umearekin bakarrik, pertsona honek duen erritmoa diferentea izango haurraren amak duenetik.

Jaiotzatik, umea murgilduko den ingurugunea, eragingarri fisikoz beteta dago. Honek, umearengan epe luze eta laburrera, garapen orokorra lortzeko baldintza psikoafektiboak sortzen bait ditu.

Esperientzien bidez, fetu edo umekia, inguruko soinuak entzuteko ez ezik, erantzunak emateko ere gai dela ikusi da (amaren ahotsa edo bihotz-taupadak, e.a.).

Umekiek eskuratzen duten jokamoldea batipat motorea da, baita berarekiko erantzuna ere.

Gradu desberdinetako ama stresatuz egindako ikerketei esker, amaren stres eta garapen motore apalen arteko erlazioa, emaitzetan oso adierazgarria izan da.

Haurraren garapena, amaren jarrerarekin zuzenean loturik dago, batez ere beronek sortzen duen ingurune afektiboarekin. Amaren orekak, umearen oreka emozionala baldintzatzen du. Oreka hau ez dago amaren erreakzio kontzientearen menpean, amaren bizipen inkontzientengan baizik, lasai edo larri egotea, berak sortzen diolarik.

Psikoanalisiak adierazten digunez, famili taldeko kideen konfliktu inkontzienteek, beraien harremanetan etengabeko eragina dute. Gaur egun, familiarik at, hainbat eta hainbat

kanpo-estimulo jasoko ditu, telebista, tabernetako musika garratza, e.a. haurrak.

Hau ikusirik, nire galdera hauxe da: Zein hizkuntza opa diezaioke gaurko ama euskaldunak, hain aldatuta dagoen inguru honetan?

Euskal emakumeak mesprezuz bizi du bere kultura, balore estandar, telebista edo emakumeen prentsak zuzendutakoekin konparatuz.

Hala eta guztiz, berak, hainbat eta hainbat gauza transmitituko dizkio irrazionalki bere umeari, zer ikusi handia dutenak, berak mesprezuz bizitako kultura eta hizkuntzaz.

Ezdago jadanik, poztasunik ama eta umearen arteko harremanetan. Gure inguru burges txikiak, umearen dotoretasun eta itxurari garrantzi handiagoa ematen bait dio maitasun eta afektibotasunari baino.

Gaurko ama euskaldunak ez dizkio kontaktzen bere umeari, berari bere amak edo amamak kontatutako historiak, denbora eta momentura egokituak. Berak liburuak irakurtzea gogokoago du, horiei prestigio handiagoko deritzelako.

Baina umek misterioaren beharra dute. Imaginazio eta dramatizazioa, hizkuntzan errepresentatuta dagoen mundu sinbolikoa ulertu eta interpretatzeko. Eta idatzia ahoz emandakoa baino askoz ere errekurtsogarri, aldagarri, eta moldagarriagoak dira.

Honez gain, umeari, amak buruz kontaktu edo dramatizatutako ipuinek, amarekiko, berarekiko, eta inguruarekiko beldurrak gaindituz, galderei erantzuten lagunduko diote.

Nire ustez, lehen 6 urteetan, ahoz emandako ipuinak, gero liburuetan ikusten dituean, umeari irakurtzeko gogoia, sortzen zaio. Baina ez idatziari bakarrik lotuta, berak ahoz entzundako ipuinak osatzeko eta mila interpretazio emateko gai izango da.

Eta hemendik, familiak edo eskolak mugatzen ez badu, fabulari oparoa sortuko da.

Idatziaren arriskua hori bait da: moldeak finkatu eta imaginazioa geldieraztea.

Isolamendu mentala edo diferente izateko era:

Azken urteon joan-etorrian, eta ikastetxe erlijiosoen prestigioa tarte, basaeskolak itxi egin dira, eskola kontzentrazioak bultzatuz, eta honek asimilazioa areagotu egin du.

Gaur egun, subentzioen politika medio, eskola hauek lehenak dira elebitasunaren alde jartzerakoan, baina hemen irudi-aldaketa ikusten dut, euskal arazoetan kontzientziarik ez bait dute hartzen.

Erresistentziaren bidea hartu dutenek, ozen eta gogor deiadar egiten dute hizkuntza errekuuperatzeko. Baina, ene ustez, geu gara "etxea teilatutik egiten hasiak garenak".

Aurretik, geure iturburuez itaundu beharko genuke, eta aurkitzean, etnia edo talde, eta indibidua harmonian berrezarri.

Beti esan da kultura Greziazatik datorkigula, erromatarren mundua bitarteko dugularik. Hau egia da mendebaldeko munduarentzat, Greziazatik adibidez, demokrazia hartu dugu. Baina hau benetako demokrazia ote zen? Gizakiak espero zezakeen sistematik justuena?

Mendebaldeko historia guztia, gehiengoaren eskubideak talde txiki bati subordinatzean datza. Talde honen izena aldatuz joan da denboran zehar: Beraiek dira jainkoak esklabuen aurrean, sierbo, marginal, langile, proletarioen zapaltzaile. Eta mar-ginazio etnikoaz mintzatuz gero, zerrenda amaitezina izango litzateke.

Ez daukagu hirugarren mundura joan beharrik ereduak aurkitzeko. Hemen Europan, gure egoera linguistikoa eta ekonomikoa antzerakoa da. Gosea da jendea apaltzeko era hoberena, humilazio etnikoen ondoren.

Estatuak, bere zentralizazio ekonomikoarekin, ondo daki hau.

Europako minoria etnikoetan eta hirugarren munduko herrietan metodologia bera erabiltzen da beraien sinbologia desager erazteko, eta aitzakiak beti izaten dira oso altruistak:

Historiaurrean bizi dira, beraien ekonomia atzeratua da, herria

alfabetatu gabe dago, hots, beren burua aurrera atera ezinean.

Eta orduan kolonizazioa hasten da. Jatorrizko hizkuntzan alfabetizazioz ez dagoenez, kolonizatzaileen hizkuntzan alfabetatuak izango dira. Eta kolonizatzaileek jatorrizko hizkuntza ondo ezagutzen ez dutenez, beren filosofia, "kultur balorea" eta baita beretzat propio diren kultur kontzeptuak ere ezarriko dituzte.

Sistema honek hainbat eta hainbat herri sakonetik desorekatu ditu, geurea barne delarik, hortik asimilazioa edo baserrietako neska-mutil zaharren kopurua. Kontzientzia etnikoaren galerarekin, desoreka sortzen da.

Batetik kultura berriaren kontzientzia daukagu eta bestetik ahaztu nahi dugunarena, oraindik gure inkontzientean tinko gelditzen den mespretxatutako kultura, honek bizirik diraelako.

Hortik dator gizaki eta talde etnikoen arteko loturaren apurketa.

Fenomeno hau munduko hiri handietako auzo txiro guztietan aurki dezakegu.

Indibiduo hauek ez dira ekonomikoki marginatuak, beti pentsaerazi diguten bezala, kultura marginatuak baizik. Banaka batzuk beren identitate kulturala salbatuko dute edo bizirik irauteko, lana aurkituz asimilatuko dira. Baina gehienak suizidio disimulatura eramanez izango dira.

Botereak zergatik harrapatu behar du hitza?

Botereak, Hitz publikoaren bidez, guk zer izan behar dugun eta gure jarrera indibidualak nolakoak izan behar duen agintzen digu.

Zeren hitza kontrolatu ondoren, botereak kontrolatu nahi izango duena, jakina, gure jarrera indibiduala bait da.

Kontrol hau bereganatzeko, lehen urratsa derrigorrezko eskola izango da, kolonizatzaileen hizkuntzan.

Eman ditzagun hitzaren desbideratze-adibideak:

Soldadu batek hitz egiten duenean, ez du bere buruez aparte inor konprometitzen, X. horrek hitz egiten du. Ostera jeneralak hitza duenean, ejerzito guztiaren hitza da. Era berean Erregeak, Lehendakariak, Abadeak, Aita Saintuak, e.a.ek “GU” eta “GUK” erabiltzen dute beti, eta ez “NI”, nahiz eta gehienetan “NI” ere izan ez...

Hitz pertsonal hori, kolektibitate baten izenean aritu da. Eta kolektibitatea ezer esateko ahalmen barik!

Ikus dezakegunez, Greziako demokraziatik ez da aldaketa handirik egon, nahiz eta sufragio unibertsala oihukatu.

Eta honela, mendebaldeko demokrazian behintzat, eratzen dira ordezkatzeko eta programak. Programa hauek, “Hitz Sozialak” dira.

Hitz sozialak legeak dira, eta legeak bete egin behar dira, nahi eta nahi ez.

Eta betetzen ez duenak, badauki zer daukan: kartzela-zigorra, edo marginazioa. Estatuaren bihotza testua bait da, dogmatikoa eta aldaezina.

Herriaren izenean egiten badute ere, herriak ezin izango du eskua hor sartu. Hitz bete bakarrik, herria ez dago pentsatzeko sortua, aginduak betetzeko baizik.

Hauxe da boterearen oinarria, nahiz demokrazia burgesa, konstituzionala, monarkia parlamentarioa, herriaren demokrazia edo beste izan.

Programak, diseinua eskatzen du, eta gero hizkuntza bakarraren justifikazio-agiria, eta kondukta indibidualaren programazioa. Euskaldunok egunero jasan behar ditugu geure hizkuntzarekiko diskriminazio-egoerak, beste bi estatuetakoko programei esker, profesio gehienetan frantsesa eta gaztelania, egoera diglosikoan aurkitzen direnean, ingelesarekin topo eginez.

Hau erokeria!

Eta sakonduz. Ba ote dauka komunikabideetako hizkuntzak sormenik?

Badirudi ezetz. Boterea bakarrik mintzatzen da, bakarrik sortuz. Besteek entzun eta ixiltasunean dira.

Eta hitza galduz gero, espontaneitate eta ludikotasun guztia kentzen zaio hizkuntzari.

Hemen hasten da boterea horien ordezoak sartzen.

Ozioa, edo Aisia har dezakegu adibidetzat:

Botereak sortu ditu gure denborapasak, dena dago ondo kontrolatuta:

MUSIKA; DROGA; ALKOHOLA; SEXUA; KIROLA; telezuzendua.

Hau, munduaren historia guztiko zapalkuntzarik gogorrena da eta gainera, ondo pasatzen dugulakoan! Eta zein preziotan!

Gure ahalmen propioak eta naturazko gogoak, aldiz, galdu egiten ditugu:

HITZA; MAITASUNA; GUSTO-RA EGINDAKO LANA; GEUK SORTUTAKO JAIK.

Gaur egun, hau guzti hau, erreprimituta aurkitzen da.

Eta frogatzeko, ez daukagu gure inguruko mintzapraktika, beti norma bila, eta gure jaiak, kontsumoko folklore bihurtuan aztertzea baino.

Eta goian aipatutako gauzen gozotasuna galtzen dugunean, errebelatu egiten gara:

Ondorioak:

Eroetxeak edo kartzelak, edo:

Bestela, apalen, idien artean galtzen gara, jokoaren erregelak onartuz, zenbaki bat izatera iritsiz.

Mutilei soldadutzan egiten diete, emakumei askoz ere lehenago egiten diguten froga hori: Norberaren estima galerazi.

Badirudi gure herriak, orain arte frustrazio hauek kentzeko terapia sinpleak erabili dituela:

Abestu eta Dantzatu.

Gaur egun, tabernetan bizitza egiten delarik, gehienetan agiri hau ikus genezake: "PROHIBIDO CANTAR", eta horren orde: "40 principales" gortu beharreko ozentasunean entzun behar.

Dantzari dagokionean, Fray Bartolomerengandik hasita nahikoa kalte egin izan da. Lehen herri guztietako plazetan erromeria egiten zen, mundu guztiak, zahar nahiz gazte, dantzatzen zuelarik. "Franco"ren garaian ere, gure plazetan, txistua eta danbolina inoiz ez dira falta izan.

Gaur egun, kontsumoko zibilizazioak, edaria eta droga eskaintzen dizkigu orde.

Beste terapia, berbarekin jolastea zen. Eta hor ditugu bertsolariak, nahiz eta gero eta zuzenduagoak izan.

Bertsolariak, gauzak jolasean kanporatzen ditu. Batak besteari kristonak esan, baina joko baten barruan, kreatibotasuna landuz aparte, barruko grinak kanporatuz. Bat bateko mintzamenean inkontzientek indar handia bait dauka.

Baina hau ere IKUSKIZUN HUTS bihurtzen hasi zaigu. Herriko jendeak ez du bertsotan egiten, horretarako ere eskolara joan behar!

Herriko jendeak, entzun eta ikusi egiten du soilik, kirolean eta beste gauza guztietan bezala.

Lehen mundu guztiak zeukan eguneroko hitzekin jolasteko aukera. Orain hori ere “maisu” eta adituen esku bakarrik dago, eta hortik datorkigu gure hizkuntzaren urritasuna eta pobrezia.

Kirola bera ere ez da jadanik jolasa, jokoa baino, eta jokoa lana izan da beti.

Gaur egun kulturatzat inposatu digutenak ez dauka poztasunik. Gure gizarteak ez daki jolasten, produkzioa eta etekinak ditu beti helburutzat.

Honen ondorioz, gure hezkuntzak kreatibotasuna kentzen dio umeari, jatorrizko sormena, ludikotasuna eta inozentzia erruduntasunean bizieraziz eta era berean gure zaharrek arruntz eta lotsagarri bihurtzen dituelarik.

Guk indibiduo bezala onartzen ez ditugun gauzak ere, azkenean beldurrez edo erruz, makurtu eta egin, egiten ditugu.

Ikus dezakegunez, ez dago arrazoi bakarra besteen hizkuntza menperatzeko, asko baizik. Garrantziatsuena hau litzateke:

Indibiduo berdinak egitea, artzain bakarra, eta beste guztiak ardi.

Eta pentsakera honexek du mundua aurreratu gabe azken 3 edo 4 mila urteetan. Zeren bat gara, baina aniztasunean!.

Erljio errebelatuek, gure mundu hau mugierazten duten indar inkontzienteek, hemen bait dute oinarria.

Baina batasun zuzentzaile eta aniztasun bateratzaile kontzeptuak nahastu dituzte.

Fisika-ikertzaileak konturatu diren bezala, osagaien elkarketa handiago bait da, osagai hauen batuketa soila baino, osagaien interrekintzari esker.

Baina jo dezagun orain Fishmanek emandako 3 puntuetara, eta ikus dezagun euskal hiztunak non kokatzen diren.

1. Jarrera

Gure burgesia orokorrean, B taldeko izan da beti, A taldea baztertuz.

Hemen egongo litzateke administrazio gehiena, unibertsitate eta politikariak barne.

Batzu etorkinak direlako, eta besteak euskal kulturatik etorriak hor asimilatu direlako.

Nahiz eta batzuk euskera “kanbio-balio” bezala hartu eta ikasten hasiak izan, oraindik ezinezkoa da gure erakundeetan euskararen eguneroko erabilera.

2. Jarrera posiblea

Hau Fishman-ek aipatutako erresistentzia jarrera izango litzateke.

Baina gaur egun erresistentzia hau gerra bezala planteatzen da, eta talde honek gauzak argi izan arren, hizkuntzari dagokionean, bere autoestima guztiz apaldua dagoenez bere ahalmena inpotentziatik zuzendua dago. Jarrera honek, autoestima berreskuratu gabe porrotak ekar litzake.

Euskaldunok geure buruarekiko estima eta balore-onarmenak orekatu beharko ditugu, puntu honetan garaile izan nahi badugu.

3. Jarrera

Jende gehiena, hizkuntz erosioaren ondorioz, 3. talde honetan legoke: TALDE APATIKOAN.

Gure eliteari jarraituz, eta baztertua ez izateko, herriko jendea, bere hizkuntza eta kultura agertzeaz lotsatu egiten da, eta erdarara jotzen du, seme-alabeentzat ingelesa eta beste hizkuntza eta kultura berena baino onuragarriagozat kontsideratuz.

Hizkuntz politika guztia eskolara zuzenduta dago; hala eta guztiz, irakaskuntzan funtzionari asko, Bizkaian behintzat, erdalduna da, eta hori oztopo handia izanik, ez litzateke txarrena izango ereduak benetan errespetatuko balira.

Nire ustez, zaharren eta gazteen arteko katea apurtu egin da. Bizkaian

etorkin asko izateaz gainera batuaren politika gogor eta txarto erabilia izan da, eta honek kalte handia egin dio euskarari berari eta kultura guztiari.

Horrela jarraituz gero, hemendik 10 urtera, orain Nafarroan edo Araban egiten diren bezalako kanpainak egin beharko dira Bizkaian ere.

Euskera ezin da inposatu, hizkuntzak fruituak emateko maitatu egin behar da, eta azkeneko politikaz, betidanik maite eta gorde dutenak, autogorrotora bidaltzen ari gara.

Lehen bere hizkuntzak ez zuen baliorik erdera nagusi zelako, eta orain euskara telebistak e.a.etan entzuten dutenean, ez dute ulertzen.

Konklusioa

Hizkuntza bat normalizatzeko, lana, arlo askotan egin behar da. Orain arteko lan guztiak, erdal elebakarrak, frantsesak edo espainolak euskalduntzeko zuzenduak izan dira, euskal hiztunak kontutan izan gabe.

Euskaldun zaharrak, marginatuak izan dira, analfabetoak direla leporatzen bait zaie.

Baina soziolinguistikak ez du interesik hizkuntza idatzian. Hizkuntzak mintzatzeko eginak daude, eta mintzatzen diran bitartean ez dira hiltzen.

Ondo ikasi beharko genuke ikasgai hau, eta horrela hiztun-kopuru eta

bizkortasunaren arabera baloratuko genuke geure hizkuntza. Kanpokoen esku utzi barik geure hizkuntzaren balioa. Zeren hauek beti begiratuko bait gaituzte zirkuko atso zabal, edo 5 hankako bigantxa bezala.

Euskara salbatuko bada, eta horretarako ahalegin guztiak egin beharko dira, beste inguruko gauza guztiekin izango da, ekologikoki, geure burua tarte delarik.

Iraultza frantsesaren aurrerapen-tako bat, euskaldunok ontzat hartua, instrukzioarena izan zen: Eskolaratzeko eskubidea mundu guztiarentzat.

Gobernu frantsesak estatu guztiko eremuan eskolak eraiki zituen, baina toki bakoitzean mintzatzen zen hizkuntza kontutan izan gabe.

Ipar Euskal herrian, euskara, beste “patois” bat izatera pasatu zen, hau da, bigarren hizkuntza.

Hegoaldean ere, antzerako egoera eman zen irakaskuntzari dagokionean.

Foru-Aldundiek, basa eskolak eraiki zituzten Errepublikara garaietan. Inguruak honela eskatzen zuenez, euskaldunak izatekotan sortu ziren. Baina hau beste era batera eratu zen. Gaztelania eta frantsesa, hizkuntza ofizialak estatu bietan, derrigorrez ikasi beharrekoak ziren frantses edo espainol agiridun herritarrentzat.

Eta are gehiago, herri baten alfabetizazioa ez da instrukzio akademikora soilik mugatzen.

Alde bietako euskaldunek, eskolan ondokoa ere ikasi zuten:

Beraien hizkuntza “patois” edo “dialecto” bat zela, beste hizkuntzekin konparaezina. Euskal Herriak, eta beraz, beraien hizkuntzak ez duela historiarik. Euskara gauza arkaiko bat dela, modatik at dagoena, eta ezelako balio kultural edo literario gabea. Menditarrean galdutako artzainek edo baserritarrek mintzatua, hitz batez esateko, jende arrunt eta etorkizunik gabekoaren hizkuntza dela. Eta hau baieztatzeko, Euskal Unibertsitatea egiteko ahalmen guztiek porrot egin zuten.

Aurrera egin zuen bakarra, jesuitek zuzendutakoa, Deustukoa izan zen. Kasualitatea ote?

Baina nik kasualitateetan ez dudanez sinisten jarrai dezagun. Karlistadaren ondoren sortu zen euskal oligarkia betidanik egon da botere zentralaren alde. Ordurarte, euskal administrazioa herriak aukeratzen zuen, eta hauek lege, usadio eta hizkuntzaren ezagutza zuten.

Garai horretatik aurrera, administrazio hau estatuak izendatzen du. Administrazio eta administratuen artean ubidea sortzen delarik. Hortik aurrera, euskaldun elebakarra marginatua izango da. Itzultzaile eta interpretarien ordua iritsi zaigu, arazo sinpleenetarako, aldundi, udaletxe, epaitegi eta besteetan.

Euskaldunak, beste herri edo etnia txikiak bezala, giza eskubideetatik at egongo dira, instrukzioari dagokionean.

Euskal Herrian, jende gehiena erdaraz alfabetatua izan arren, argitaletxeek beraien irakurtzeko gogofalta, nabarizat hartu dute.

Egia esateko irakur-idazteko prozesua hizkuntza arrotz batean egitea oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren. Mekanika azkar ikasten da baina ez da hizkuntzaren kontzeptualizazioa eskuratzen.

Eskola-porrot gehienak ere hortik datozkigu. Gaurko eskola zentralistak, programa eta testu berdinak prestatzen ditu, geografia, gizarte nahiz kultur mailak kontutan izan gabe.

Umeez hasieran irakurketa mekanika berehala hartzen badute ere, eta jeroglifikoak bezala fonemak eta hitzak asmatzeak poza sortzen badie ere, zentzua ulertzea zail bazaie, laister aspertuko dira, hasierako motibazioa galduz.

Klaseko irakurgaiak eta literatura, gogaikarri bihurtzen dira beraientzat.

Euskaldunek ez dute ikusi beren hizkuntzan katezismoaz beste testurik, orduan klaseetako testuek ez zuten zer ikusirik beraien mundu sinboliko eta kontzeptualarekin.

Argi dago, Elizak bakarrik duela nahikoa diru euskalki desberdinetan testuak argitaratzeko.

Ikus dezakegunez, idatziari kulto handia eskaintzen zaion mundu honetan, ez dago tokirik euskaldun gehienentzat.

Eta hala eta guztiz ere, posiblea da ingeles familia batekin uda pasatzera joatea, familia honi, alfabetatuta dagoen ala ez inork galdetuko ez diolarik.

Zeren, Londresko suburbioetako jende arruntak prestigio haundiagoa bait du, euskal baserritarrek baino, nahiz eta sozial eta kulturalki gure inguruan integratua izan.

Sistema hau erabili izan balitz (euskal inguruan bizi) euskalduntze-prozesuan, hizkuntza biziaren ikasketa irabaziko genukeen eta euskal hitzunen berenganako eta bere hizkuntzarako estima lortu.

Honen kontra, hizkuntza idatzi eta gramatikaren kultoaz, orain hainbat eta hainbat EGA tituludun ditugu, diploma poltsikoan izan arren, mintzatzeko gaitasunik gabe, administrazioan eta hezkuntza sailean batipat.

Hau dela eta, hainbat euskal hitzun galdu ditugu asimilazioaren alde. Batuaren politikaren agintariak azentuaren erregelari buruz ados jartzen ez diren bitartean, euskaldunberriak, izugarritzko azentoaz mintzaten dira. Onartezina, euskal hitzun itsu beharbada, baino gor ez denarentzat.

Barakaldon (2. hiria Bizkaian, Bilbo ondoren, 200.000 biztanlez, gehienak inmigratuak) entzun dut maiz: Non entzun daiteke euskara?

Nire erantzuna hauxe da: Hartu txalupa, eta joan ibaiaren beste aldera,

han mundu guztia mintzatzen da euskaraz! Joan Erandiora, hor duzue euskara bixie!

Baina hau ez da euskara batua, hizkuntza idatziaren eredu. Beraien helburua 6 hilabeteetan EGA lortu eta euskaldun bezala eskubideak izatea bait da, eta denok dakigu denbora honetan hartzen den hizkuntza eta kultura zein mailakoa den!

Eta hauexek dira gaur egun gure euskal ereduak.

Bizkaieraren sistema nahikoa bereizten da fonologikoki eta morfologikoki sandhi eta kontrakzioei esker batutik, baina hizkuntza bizi eta sortzailea da.

Bizkaiera sistematikoki baztertua izan da erdiguneko euskalkiekiko duen berezitasun eta desberdintasunagatik, euskalki guztiek hizkuntza osotuko ez balute bezala.

Eta bizkaitarrak, gaur egun marginalizatuak izan direnez, lasai asko bizi dira gartzelania batua mintzatuz.

Zergatia argi dago: Bizkaieraren kontzeptualtasuna oraindik hurbil daukate, gehienak euskaraz asko mintzatu ez badira ere entzuna dute, guraso, familia edo auzoen artean.

Gazteleraren kontzeptualizazioa egunero hartzen dute telebista, egunkari, eta abarretan, hau eskolatik datorkiela gaineratu gabe.

Batuak, ostera, oraindik ez du ezelako erreferentziarik, horregatik egiten zaie hain erraz euskaldunberriei idaztea, erdaratik kalkoak hartzen dituztenez, itzulpenak literalki egiten dituzte.

Baina jaun-andreok hori ez da euskara! hori, euskal hizkiekin egindako erdara da.! Eta hemen dago euskal prentsaren kakoa. Norentzat idatzi?.

Bizkaitarrek beren hizkuntzaren balioa zalantzan dute. Zeren inor ez bait litzateke ausartuko ingeles bat kritikatzeko, edozein eratako hizkuntza erabil dezakeelarik, baina edozein euskaldunberrik gaitzat hartzen du bere burua, euskaldunzaharrak zuzentzeko.

Argi dago zergatia, euskaldunberria goragoko kulturatik datorrelako. Ingelesak, frantsesak edo espainolak harrokeria berdina agertu dute aurretik ere beste kontinenteetako indigenen aurrean.

Beraiek frogatuta daukate nondik datozen, eta bigarren hizkuntza ikasiko dute eta literatura sorterazi herri basati honetan.

Misiolariak berriro ere gure herrian!.

Gehienetan, ostera euskaldunberriak gramatika buruz jakiten du, baina pilatutako kontzeptuak falta ditu, Saussure-k azaltzen zituenak, alegia, komunitate linguistikoa lotzen dutenak.

Eta euskaldunberriak ulertzen ez dituen kontzeptu asko, euskaldun-zaharrak, erreprimitu eta ahaztu egiten ditu, lotsatuz, bere hizkuntza arrunt eta eskas sentitzen duelarik. Honela doa piskanaka gure euskaltegi eta ikastoletako hizkuntza murrizten. Hitz oso aukeratuak, intelektualak, sartuz, baina atzetik kolektibo nahikorik eduki barik hitz horiek automatikoki kontzeptualizatzeko, eta orduan elkarrizketa eta irakurketa martirio bihurtzen zaigu.

Soziolinguistika oso gutxi egiten da gure herrian, eredu guztiak nahastuz.

Ezin duguna ahaztu hauxe da: Beste hizkuntza guztiek aurrera egiten badute ez da unibertsitatean ondo idazten delako, eguneroko hizkuntza argota delako baizik. Hau komunikabideek ondo dakite, zeren doktorego-tesiek ez bait dute zer ikusirik egunkari, iragarki edo kaleko hizkuntzarekin, Gaur egun Frantsian edo beste herrietan nahiz eta oso goi-mailako elkarrizketa izan argota barra-barra erabiltzen dute komunikabideetan. Eta gehiago oraindik, Frantsian idatzsistema aldatzeko mogimenduak hasi dira eskola-porrota kontutan hartuz.

Gaur egun euskal hiztunak, batez ere Bizkaian, ez dira euskaraz mintzatzen kontziente direlako txarto egiten dutela, eta orduan etxean ere, gaztelaniaz egiteko ohitura hartu dute.

Euskal hiztunen kopurua 600.000koa zela¹⁷ jotzen zen orain dela urte batzu, horretatik % 60

bizkaieraz, eta kopuru hau ez da kontutan hartu. Euskaltzaindiak, diakroniari eta altxor literarioei begira, egungo egoera soziolinguistikoa ahaztu egin du, eta horra hor emaitzak.

Batuaren eta bizaieraren arteko gerrarekin aurkitzen gara oraingoan, eta gu beti gerran!

Berriro ere beste banaketa bat egin da, herriarentzat tragiko bihurtu dena.

Lehendik euskalkiak sendotu eta denok orekatu ondoren batua lantzen hasi beharrean, gero apurka batuari osotasuna eta ulermena emateko, prisaz eta erdi-ipurdika ibili gara, batez ere ia inork irakurriko ez duen idatziaren premiagatik, besteei gai garelara frogatzeko.

Noiz izango ote gara gai goiko eta behekoen konparaketak alde batera utzi eta geu izaten hasteko. Gainera gehiago errespetatuko gaituzte.

Batua / bizkaiera aurrez-aurre hau, Elizak eta politiko batzuk probetxatzen dute bizkaitar baztertu eta minduak erakartzeko, txar eta onen arteko filosofia bultzatuz.

Dogma, klitxe eta muga gehiegi dago gure hizkuntzan eta politikan gure euskarak behar bezala eta naturaltasunez eboluziona dezan.

Gure elite akademikoen latin-ikasketak eta beren pentsamendu indoeuoparretik datorkien mentalitate kartesianoak eragin handia du gure hizkuntzan. Hala eta guztiz

ez dakit nahikoak izango diren beren hizkuntza ezartzeko...

Nik neure kezka ditut, gauza berak porrot egin zuen Larramendi eta Aranarekin. Zoritxarrez ez dugu geure historia begiratzeko.

R.M. Azkueren batasun-ideiaz asko mintzatu da, baina berak ez zuen lapurtera erdiko euskalkizat hartuko, gipuzkera baizik, bizkaierarekin lotura handiagoa duelako, lexiko eta fonologia arloan eta morfologikoki zerbait lapurterarekin ere bai.

Euskalkien artean, bizkaiera da gehien bereizten dena besteengandik:

-Aditz-morfologian, "GI" erabiltzen du oinarritzat "ZA"ren ordez.

"ekar dagidan" eta ez "ekar dezadan"

"ekar banagi" eta ez "ekar baneza"

-Antzera, bera da bakarra Ø marka erabiltzen iraganean 3. pertsonan aurrizki bezala:

"Øegoan" "zegoan" en ordez.

"Øeban" "zuen" en ordez.

Bizkaierak pluralgileak sufijatu egiten ditu infijatu ordez.

"dauz" "ditu" ren ordez.

"daukazuz" "dauzkatzu" ren ordez.

Y aurrizkia erabiltzen du 3. pertsona singular eta pluralean, "izan" aditzaren orain eta iragana:

"yat" "zait" en ordez.

"yatazan" "zitzaizkidan" en ordez.

Bizkaierak bakarrik ezagutzen du iraganeko potentziala "artu leuskidan" potentzial ebentualaren ondoan "artu leuskit"

"b" eta "j" epentetikoak hartzen ditu gipuzkerarekin batera:

"buruba" "burua" ren ordez.

"gorrija" "gorria" ren ordez.

Fonologian, "h" aspiraturik ez da ezagutzen, ipar-ekialdeko euskalkietatik bereiziz.

"jota"ren existentzia: "ioan", besteetan "joan" "yoan".

"tx" fonema erabiltzen du "x" ordez inizialean: "txori", "txakur"

"Berori"-ren erabilera, aditza 3. pertsonan dagoela, errespetu eta mirestasunaren adierazgarri, zeren, "zu" k "hi" ordezkatu bait du, arrunt sentituz, "you" ingelesaren parean. Hau ere emakumeengan lehenago eta gehiago eman izan da. Gizonen "hika" forma askoz ere gehiago erabili dute, konfidantza-eremuetan.

Negazioan, mugagabeak, hasiera bokalaren laguntzaz erabiltzen ditu:

"inon", "inor" eta ez "nehor", "nehon" lapurteraz bezala.

"ezer-b-ez" "ezebez" "deus" en ordez.

Aditzaren adierazgarri morfologikoak:

“zan” “zen” en ordez.
“zukean” “zukeen” en ordez.

Aditz-nominalizazioak “TE” egiten ditu “ITE”ren ordez.

“izaten”, “egoten”, “esaten”, “izaiten”, “egoiten”, “erraiten” en ordez.

Aditzaren morfosintasiari dagokionean, partizipioaren genitibo-lokatiboaren erabilera orokorra azpimarratu beharko dugu, geroaldi perifrastikoa egiterakoan.

“izango naz” “jango dot”
“izane*” “janen” ordez.

Halaber badago ere iraganeko partizipio antzekoa balio perfektiboz “TA” edo “DA” gehituz, oso erabiliak Gipuzkoan, orain arte aipatuko ezaugarri morfologikoak bezala.

“ikusitako gauzak” “egindako lanak” “ildakoen arimak”

Gazteleraren antzera “ser” eta “haber” abstraktuan erabiltzen dituen bezala, eta “estar” eta “tener” konkretuan, euskalki biek erabiltzen dute “izan” trantsitibo nahiz intrantsitiboa bere balio abstraktuaz.

Baina “egon” eta “euki” erabiliko dituzte kaso konkretuetan ¹⁸.

Berezitasunak berezitasun, badi-rudi, bizkaierak bustidurak asko erabiltzen dituela, hala eta guztiz ere, esan beharra dago, Bizkaiko toki batzutan berezitasun hauek galtuta ere badituela, batueraren alde.

Eta batuaren apostua eginda dagoenez, komunikabide eta Administrazioaren aldetik, azentuaz zintzo jokatu beharri derrigorrezkoa deritzot, bizkaierari dagokionean, eta honela behintzat orain arte galdutakoak, eskuratu ezin baditugu ere, gehiagok alde egin ez dezala lortuko genuke.

Ondo aztertua da azentuak zein garrantzi duen hizkuntza identifikatzeko orduan. Nahiz eta hitzak ez ulertu, doinua antzekoa bada, honek erakarri egiten gaitu. Hizkuntzaren melodia bait da, lehen bata besteengandik bereiz erazten diguna.

Eta espero dezagun, apurka-apurka, komunikabide berrien bidez, ekologiarekin batera, euskal masa-medio alternatiboak gero eta gehiago modan jartzen direnean, atzekoak kontutan izanik, aurrera egitea. Zeren ezinezkoa bait da idazten ikastea mintzatzen ikasi baino lehen.

Azken urteotako produkzio asko gaitz berak minduta dago:

Idatzizko produkzio handia, baina balio kontzeptualetik at. Gazteleratik itzulitako lanak ere bait ditugu sari literarioak irabazten!

Dena da onargarri, euskarazko produkzio-lasterketa zoro honetan! Baina gure biziaren pertzepzioa ez da sumatzen emaitzan. Geure mundua ikusteko eta interpretatzeko erak errebindikatzeko ordua iritsi dela uste dut.

Euskaraz gauzatutako arloak eta gauzak, errespeto handiagoz idatzi behar dira.

Hizkuntza normalizatzeko, berrinterpretatu egin behar da, bertso zaharrak eta atsotitzak eguneroko hiztegian erabiliz, lotsarik gabe, erderazko kalikoen truke. Gure ume eta gazteei Elizak debekatutako kantu zaharrak irakatsiz. Martintxo asmatzaileak, neska dantzari eta sorginaren salatariak baztertuz.

Gure herrietako plazetan, igandero txistu eta danbolina, trikitrixa, txalaparta, rok-a eta beste musikarekin txandatzen direnean...

Modernitatea, antzinakotasunaren eboluzio bezala ikusten hasten garenean, eta ez aurkako moduan...

Herrietan gazteek jaiak antolatzen dituztenean oraintsu arte bezala, dirua eta boterea alde batera utziz, eta ludikotasuna helburu bakartzat hartuz...

Gure herrietako neskek, euren euskalduntasuna eta naturaltasuna bildur barik bizitzen hasten direnean...

Gure hizkuntza eta kulturak, hil ala biziko saltoa emango du. Guzti hau argitzeko, gazte eta zaharren arteko lotura egiteko metodologia aurkitu beharra dago. Eta dema honek ematen dit kemena, nire ikasketak aurrera eramateko.

Oharrak

1. VON HUMBOLDT, *Los Vascos*, Ed. Auñamendi, Donostia, 1.975.
2. DE SAUSSURE FERDINAND, *Curso de linguística General*, Alcal Editor, Madril, 1.980.
3. DE OTEIZA JORGE, *QUOUSQUE TANDEM, Interpretación estética del alma vasca*. Auñamendi Azkue 4ª Edición.
4. ORTIZ OSES, ANDRES MAYR. F. K. *El inconsciente colectivo Vasco. Mitología Cultural y Arquetipos psicosociales*, Editorial Txertoa, 1.982
5. JUNG, C.G. *El inconsciente colectivo y los arquetipos*, Paidós, 1.970.
6. DE BARANDIARAN JOSE MIGEL, *Mitología Vasca*, Editorial Txertoa, 1.988.

7. ORTIZ OSES. Op. Cit.
8. FISHMAN, JOSUA, *Sociología del Lenguaje*, Ed. Cátedra, Madril. 1.982.
9. SANCHEZ CARRION, JOSE MARIA, *Lengua y Pueblo*, Elkar, Bilbo 1.980.
10. LAPESA RAFAEL. *Historia de la Lengua Española*, Editorial Gredos, Madril, 1,980.
11. LACARRA, JOSE MARIA, *Vasconia Medieval Filologia e Historia*, Donostia, 1.957
12. ETXEPAREKO BERNAT, *Lingua Vasconum Primitiae*. Patxi Altunaren Edizio Kritikoa. Ediciones Mensajero, Bilbo 1.980
13. ETCHEBERRI, JOANES, *Lau-Urdiri Gomendiozco carta edo guthuna* J.D'Etcheberri Saraco Miricuac-Baionan.
14. LARRAMENDI, AITA MANUEL, *De la Ancianidad y Universalidad del Vascuence*. Gran Enciclopedia Vasca.
15. MOGEL, JUAN ANTONIO, *Peru Abarka*, Gran Enciclopedia Vasca., 1.980
16. LEIÇARRAGA, JOANES *Testamentu Berria*.
17. EUSKALTZAINDIA-SIADECO, *Conflicto Lingüístico en Euskadi*. Ediciones Vascas 1.979
18. ALLIERES JACQUES, *La dialectologie basque, Euskal Linguistika eta Literatura, Bide berriak*. Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak. Bilbon, 1.981.